



Ebazpena, 2021ko apirilaren 22koa, Hezkuntza sailburuordearena, hainbat plaza eskaintzen dituen herri ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak egin ditzaten. (IE3. Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan)

"Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren markoa" paradigma-aldaketa garrantzitsua da eta kompetentzietan oinarritutako hezkuntzaren planteamendutik abiatzen da. Ikuspegi horren ezaugarria eskuratutako ikaskuntzak egoera funtzional konplexuak konpontzera transferitzea, artikulatzea eta konbinatzea da.

Oinarrizko kompetentziak hartuz lortzen da ikasleentzako definitutako irteerako profil orokorra, hau da, oinarrizko hezkuntzaren helburua. Oinarrizko kompetentzien artean, batzuk zeharkako edo generiko gisa definitzen dira: arazoak konpontzeko edo bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko behar dira. Beste batzuk, berriz, espezifikoak dira, diziplina alor batekoak edo batzuetakoak. Zeharkako kompetentzietako bat da Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia eta, diziplina barrukoaren artean, berriz, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia dago.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen 236/2015 Dekretuak dio zeharkako kompetentzietako bat hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia dela, hau da, hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan. Eta diziplina barruko oinarrizko kompetentzietatik hartzen du hizkuntza eta literatura-komunikaziorako kompetentzia, hots, hitzezko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea –euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez–, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, bai eta Literatura-hezkuntza garatzea ere, nork bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

Horrez gain, aipaturiko 236/2015 Dekretuan ezartzen denez, hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen lagunduz. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko du euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean komunikazio-kompetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere nahikoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzea baztertu gabe, hizkuntza-proiektuan hala jasoa duten ikastetxeetan. Halaber, Dekretuak dio Sailak hizkuntzen trataera integratua eta integrala ere bultzatuko duela, komunikatzeko kompetentzia eleaniztun bat lortzeko asmoz.

Hori guztia honako hauetan jasotako xedapenak betetzeko: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura Sailarena, Euskal Herriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena - horiek osatzen baitute EAEko hizkuntza-arloko araudia; eta, era berean, 236/2015 Dekretua betetzeko ere, zeinaren bidez, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen baita (EHAA, 2016ko urtarrilaren 15ekoa).



Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila ikasleek atzeritako hizkuntzak ikastea hobe dezaten ahalegin handia egiten ari da. Ingeles hizkuntzari dagokionez eta Lehenengo Hezkuntzan, beste neurri batzuen artean hizkuntzan murgiltzeko egonaldien programa sustatzen ari da, ikasleek ikasgelakoak bezalakoak ez diren egoera komunikatiboetan atzeritako hizkuntza erabil dezaten eta beraz ohiko komunikazio-harremanetan erabiltzeko aukera gehiago izan dezaten.

Aipatutako programa ingeles hizkuntzan murgiltzeko 5 eguneko egonaldietan datza, barnetegi gisa.

Ikastetxe parte-hartzaileek balorazio positiboa egin dute programa horretaz. Ondorioz, Hezkuntza Sailak arestian aipatutako egonaldietako deialdia 2021/2022 ikasturterako berriro ateratzea erabaki du.

COVID-19k eragindako osasun-krisiak ikastetxeen funtzionamendu normala aldatu du, eta, bereziki, eragin handia izan zuen ikastetxeek aurreko ikasturteetan aurreikusitako proiektuak eta programak betetzeko orduan. Beraz, 2021-2022 ikasturtearen plangintzan kontuan hartu behar da programatutako jarduerak irakaskuntza ez-presentzialera egokitzea.

Ebazpen honen bidez arautuko da egonaldietan parte hartuko duten ikastetxeak aukeratzeko prozesua, eta parte hartzeko baldintzak ere zehaztuko dira.

Gauzak horrela, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuan, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen, eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera,

EBATZI DUT:

Lehenengoa

- 1.- Ikastetxe publikoetan matrikulatutako Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzako 2.196 plaza deitzea, ingelesez murgiltzeko egonaldietan parte hartzeko.
- 2.- Jarduera gauzatzean, istripu-asegurua eta erantzukizun zibileko asegurua izango dute parte hartzaileek.
- 3.- Lurralde historiko bakoitzaren matrikula hartuko da kontuan ikastetxe-kopurua lurraldeka banatzeko.
- 4.- Jarduera 2021eko abendua eta 2022ko maiatza bitartean gauzatuko da, I. eranskineko egutegiaren arabera. Ikasleak astebetez egongo dira barnetegian, astelehenetik ostiralera.

Ingeles hizkuntza ikasteko jardueren programak II. eranskinean jaso diren orientabide orokorrak bete beharko ditu.

Bigarrena

Parte hartu nahi duten ikastetxeek Lehen Hezkuntzako 6. mailako gelak osorik aurkeztu beharko dituzte.

Ikastetxeak, bere tamaina txikia dela eta, 5. eta 6. kurtsoetako ikasleak ikasgela berean elkartzen baditu ikastetxean, bi mailetakoko ikasleekin parte har dezake, baina plaza lortzen badu, datorren ikasturteko deialdian ezingo du parte hartu. Era berean, aurreko ikasturteko deialdian plaza lortu badu, deialdi honetan ezin du parte hartu.



Ikastetxe bakoitzak izendatuko du ikasleak lagunduko dituen irakaslea. Horrez gain, taldeak 25 ikasletik gorakoak badira edo 1/25 ratioari eusteko, beharrezkoa den adina irakasle izendatuko da. Irakasle laguntzaileek, ahal den neurrian, ingeles hizkuntza jakingo dute, murgiltze-programa egoki garatzeko beste.

Irakasle laguntzaileek taldeak jardueran egoki parte hartzen duela zaindu behar dute.

Hirugarrena

2021eko maiatzaren 24an amaituko da eskabideak egiteko epea, egun hori barne. Aipatu berri dugun eskabidean, ikastetxeko irakasleen klaustroaren oniritzia adierazi behar da; horretarako, eskabidean bereziki prestatutako paragrafoa bete behar da.

Eskaerak dagozkien eranskinekin batera elektronikoki tramitatuko dira. Tramitazioa herri ikastetxeei zuzendutako atari honetan egingo dira: “Herri-ikastetxeak/Deialdiak” (<https://educación.hezkuntza.net/group/deialdiak/>)

Aurtengo deialdiko fitxa atari honetan argitaratuko da, baita ere deialdi honekin erlazionatutako berri guztiak. Fitxa honetan eskatzaile guztien eskura izango dira eskaera egiteko gida eta jarraibideak.

Laugarrena

- 1.- Ingeleseiz murgiltzeko egonaldiaren kostuak, partez, Hezkuntza Sailak ordainduko ditu eta, partez, ikasleak.
- 2.- Murgiltzeko egonaldi hauetan parte hartzen duen ikasleari ordaintzea dagokion zatia 40 eurokoa da.

Bosgarrena

- 1.- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak egingo du eskabideen aukeraketa.
- 2.- Ikastetxeak aukeratzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - 1.º Aurreko deialdietan hizkuntza egonaldiak izan ez dituzten zentroak.
 - 2.º Administrazioaren “Hamaika Esku” jarduera planean parte hartzen duten ikastetxeak.
 - 3.º Aurreko bost ikasturteetan (2015-2016tik 2019-2020ra, biak barne) egonldirik egin ez duten ikastetxeak, nahiz eta aurretik egonaldiren bat egina izan.
 - 4.º Hezkuntza Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko irakaskuntza (heziketa-zikloak salbu) ematen duten ikastetxeei zuzendutako deialdian parte hartu duten ikastetxeak, horiek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2020-2021 ikasturtean, ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruko berrikuntza-proiektuei lotuta (Eleaniztasunerantz). Lehentasuna izango dute B modalitateko ikastetxeek.
 - 5.º Eskola mapari jarraituz, 2020-2021 ikasturteko aurreko deialdian (Eleaniztasunerantz) parte hartu duten Bigarren Hezkuntzako zentroeiei atxikitako ikastetxeak. Lehentasuna izango dute B modalitateko ikastetxeek.
 - 6.º 2014-2015 ikasturtetik aurrera, ERASMUS+eko eTwinning eta KA2 eskola elkarketak ekintzetan parte hartu izan duten ikastetxeak.

3.- Berdinketak hausteko, ikastetxearen testuinguru sozio-ekonomikoari erreparatuko zaio. Hortaz, berdinketak hauste aldera, lehentasuna izango du ikasle bekadunen ehunekorik handiena duen ikastetxeak.



Lehentasunaren irizpide horiek aplikatuta ere berdinketak bere horretan badirau, ikastetxearen neurriari erreparatuko zaio. Hau da, kasu horretan, lehentasuna izango dute ikasle gutxien matrikulaturik duten ikastetxeek.

Seigarrena

1.- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak ebazpena argitaratuko du ekainaren hirugarren astean. Ebazpen horretan hauek zehaztuko dira:

- Parte hartuko duten zentroyen zerrenda. Kasu bakoitzean emandako txanda, talde eta ikasleen kopurua adieraziko da.
- Erreserban dauden ikastetxeen zerrenda, eskaerak plazen kopurua baino handiagoak izanez gero. Huts egiteak daudenean erreserban dauden zentroyen hautaketa talde eta ikasleen antzen arabera egingo da lurraldeka.
- Bazter utzitako ikastetxeen zerrenda, arrazoiak zehaztuz.

2.- Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak txandak esleituko ditu eta enpresen kontratatuzeko prozeduraren barruan egongo da esleipena. Horretarako parte hartzen duten ikasleen kopuruen aldaketak ahalik eta gutxien izan behar dira.

Zazpigarrena

Enpresa kontratatua jakin bezain laster, ikastetxeek dagokion dokumentua formalizatuko dute enpresarekin. Horretarako, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak eman duen erdua hartuko dute oinarri. Dokumentuan zehaztuko dira, batetik, ikasle parte-hartzaileen kopurua eta, bestetik, ikasleen kuoten ordainketa konpromisoa aipatutako enpresari, egonaldia hasi aurretik egingo dena.

Zortzigarrena

Behin dokumentua sinaturik, han ezarritakoa bete beharko da. Hori dela eta, ikastetxeren batek ezin badu barnetegiko asteaz gozatu gertaera horren berri eman beharko dio Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzari, nahikoa denboraz, bere lekuan beste ikastetxe bat jar dezan.

Hala gertatuz gero, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritzak beste ikastetxe bat aukeratuko du astebeteko barnetegiaz goza dezan. Nahiz eta haren lekuan joateko beste ikastetxe bat izendatu, egonaldiari uko egiten dion ikastetxeak bere gain hartu beharko ditu dokumentuan hitzartu dituen ordainketak ikasle berrien kuotak txikiagoak izanez gero.

Bederatzigarrena

1.- Barnetegia amaitu eta hamabost egun igaro aurretik, ikastetxeak txosten laburra landu beharko du. Txostenean, atal hauek zehaztu behar dira:

1. Barnetegian izan diren ikasleen kopurua.
2. Ikasleen parte-hartzea alderdi pedagogikoetan eta bizikidetzan.
3. Alderdi teknikoan eta antolakuntzako alderdien ebaluazioa (barnetegiaren azpiegiturak eta antolakuntza).
4. Hala balegokio, iradokizunak eta hobetze-proposamenak.



5. Irakasleen zerrenda. Irakasle bakoitza zenbat egun egon den ere, zehaztuko da.

Programa honetan parte hartu duten irakasleei dagokienez, barnetegiko egonaldia, gehienez ere, 30 prestakuntza-ordu moduan balioetsiko zaie.

Balioespen hori batera egingo zaie parte hartzen duten irakasle guztiei, egonaldiak amaitu ondoren.



2.- Ikastetxeko urteko memorian jasoko da txosten hori eta <https://educacion.hezkuntza.net/deialdiak> plataforman ere.

Hamargarrena

Ebazpen honetan jasotako egonaldiak garatzen diren unean indarrean dagoen osasun-araudiak eta Hezkuntza Sailaren protokoloek baldintzatuko dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 22a.

Maria Begoña Pedrosa Lobato
HEZKUNTZA SAILBURUORDEA





I. ERANSKINA
HIZKUNTZAN MURGILTZEKO EGONALDIEN EGUTEGIA
2021-2022 IKASTURTEA

Abendua 2021					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1	29	30	1	2	3
2	13	14	15	16	17

Urtarrila 2022					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
3	10	11	12	13	14
4	17	18	19	20	21
5	24	25	26	27	28

Otsaila 2022					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
6	31	1	2	3	4
7	7	8	9	10	11
8	14	15	16	17	18
9	21	22	23	24	25

Martxoa 2022					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
10	7	8	9	10	11
11	14	15	16	17	18
12	21	22	23	24	25
13	28	29	30	31	1

Apirila 2022					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
14	4	5	6	7	8
15	25	26	27	28	29

Maiatza 2022					
Txanda	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
16	9	10	11	12	13
17	16	17	18	19	20
18	23	24	25	26	27



II. ERANSKINA

ORIENTABIDE OROKORRAK

1. Barnetegi-programaren helburuak:

Barnetegi hauen helburua da ingelesa ikatea eta erabiltzea. Jarduera guztiak ingelesez gauzatuko dira. Egonaldien azken xedea da ikasleen gaitasunak finkatzea eta aurretik dituztenak handitzea. Horretarako, parte-hartzaileentzat erakargarriak eta dibertigarriak diren jarduerak gauzatuko dira.

2. Antolakuntza-ezaugarriak:

Egonaldiaren ezaugarriak hauek dira:

- Astebeteko barnetegiak izango dira. Ikasleak astelehen goizean heldu eta ostiralean joango dira, bazkalostean. Egonaldiak, hortaz, bost egun eta lau gautakoak izango dira.
- Ikasleek 5 eta 8 eskola-ordu artean izango dituzte egunero.
- Eskolaz kanpoko jarduerak eta txangoak egingo dira barnetegitik gertuko lekuetara. Horiek guztiak ingelesez izango dira.

3. Ezaugarri pedagogikoak:

- Jarraian aipatuko ditugun atalak landuko dira eta ikasleen hezkuntza-etapara egokitu:
 - **Workshop 1 Be a scientist:** zenbait esperimendu zientifiko gauzatuko dira; landare-albuma osatu; barnetegiaren inguru naturala ezagutu; klima aztertu; gauez zeruari begiratu. Tailerra amaitzean, ikasitakoa hitzez azalduko dute ikasleek.
 - **Workshop 2 Be an artist:** abestien letrak aztertu; abestiak kantatu; abesti bat egin eta hura kantatu; pintura-tailerra, eskultura-tailerra, maketa-tailerra egin eta erakusketa antolatu.
 - **Workshop 3 Be a cook:** janari errazak prestatu (osagaien zerrenda, erabiliko ditugun tresnen zerrenda, janaria egiteko urratsak azaldu, egin ditugun platerak balioetsi).
 - **Workshop 4 The Olympic Games:** taldeko kirolak eta jolasak. Arauak negoziatu, azalpenak eman, lagunarteko hizkera landu, eta abar.
 - **Workshop 5 Be a blogger:** ikastetxearen *bloga* egin, non ikasleek jarduera gauzatuak azalduko dituzten. *Blog*-ean, gainera, bideoak nahiz argazkiak esekiko dituzte eta ingelesezko foroa martxan jarriko dute ikasleek, behin egonaldia amaiturik lagunekin kontaktuan segitzeko. Jarduera horretan kontu handiz zaindu beharko da *blog*-ean esekitzen diren bideoek eta argazkiek bizikidetzara-arauekin bat etortzea eta parte-hartzaile guztien oniritzia izatea.
- CLIL (Content and Language Integrated Learning) ikuspegiarekin bat etorriko da metodologia. Hizkuntza, beraz, ikaskuntza-tresna izango da. Hizkuntzaren bidez Lehen Hezkuntzako 6. mailako curriculum-alorrekin lotura duten zenbait eduki garatuko dira. Ahoz mintzatzeko gaitasuna bereziki landuko da.
- Ez dira ingeles gramatikako eskola formalak emango. Nolanahi ere, jarduera programatuetakoa batzuk ikasgelan gauzatu daitezke eta haien bidez ingeles-gramatika landu.
- Eguneroko eginbeharretan multimedia baliabideak erabiliko dira.
- Ahozko adierazpena modu sistematikoan landuko da. Horrela, egunero, eskola-orduak amaitzean, ikasleek, taldeka zein banaka, ahoz emango dituzte azalpenak.
- Ikasle bakoitzak mintza praktika egin beharko du egunero. Horrez gain, barnetegia amaitzean ikasle taldeek mintzaldia prestatuko dute ingelesez, besteen aurrean, ingelesez berriro ere, azaltzeko.



4. Irakasle laguntzaileen elkarlana:

Taldearekin batera joaten diren irakasle laguntzaileek taldearen ardura izango dute uneoro eta ondorio guztietarako. Horrez gain, ikasleek jardueran egoki parte hartzea zainduko dute irakasleek.

Barnetegira joan aurretik, ikastetxea harremanean jarriko da enpresa antolatzailearekin. Horrela, ikastetxeak informazioa lortuko du eguneroko programazio orokorraren gain eta, hala badagokio, ekarpen zehatzak egin ditzake.

Barnetegiko programazio aurreikusia gogoan, irakasle laguntzaileek eta enpresa antolatzaileak elkarlanean aritzeko beste modu batzuk hitzartu ditzakete. Biek ala biek, garrantzi handia emango diote eguna amaitzean nahiz egonaldiaren azken egunean ikasleek egin behar dituzten ahozko azalpenak prestatzeari.

5. Programan erabiliko diren baliabideak:

Egonaldiak barnetegietako moduan egingo dira, bi ostatu edo egoitzetan gutxienez. Ostatu edo egoitza hauek areto egokiak izango dituzte parte-hartzaileei egonaldiaren berezko zerbitzu guztiak eskaintzeko (logelak, jantokia, ikasgelak eta hezkuntza-jardueretarako hainbat areto). Ostatu edo egoitzen edukiera gutxi gora behera 70 edo 52 ikaslerentzakoak izango da, hurrenez hurren. Hori dela eta, plaza lortu duen ikastetxe baten ikasle kopurua handiagoa izango balitz bi aterpeetan edo bi txanda ezberdinetan egongo litzateke banatuta.

Astero 122 ikasle inguruk hartuko dute parte (ikastetxe berekoak edo ikastetxe desberdinetakoak izan daitezke), gehi haiekin datozen irakasle laguntzaileek. 10 eta 14 ikasle arteko 5 talde osatuko dira ostatu bakoitzean.

Jarduera-programa gauzatuko duen lantaldea osatuko dute ingelesa guztiz menderatzen duten profesionalek. Profesional horiek, gainera, gai dira hizkuntza irakasteko edo animazio sozialeko nahiz kultureko eta aisialdiko zein astialdiko jarduerak antolatzeko. Profesional horietako bat programaren koordinatzaile nagusi izango da, eta barnetegian biziko da.

Goian aipatu dugun lantaldeak parte-hartzaileen esku jarriko ditu murgiltze-programan aurreikusi diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren baliabide materialak. Horrez gain, taldeei behar duten materiala emango diete parte-hartze proiektuak garatzeko.

Halaber, ikastetxe, ostatu/egoitza eta ikastetxe bitarteko garraioa ere sartuta dago.